


ARGURUTZ

Luis Pedro Peña Santiago-ri

Luix Mari Zaldúa Etxabe




1. Euskal Herriko ondare higiezinaren azterketen alorrean badira, beste batzurekin konparatuz gero, gutxi samar ikertu diren zenbait atal. Hori horrela izan dadin eragin duten arrazoi guztiak hona ekartzeak eta ondoren aztertzeak aski luze joko lukeenez ez ditugu hemen jorratuko, oraingo honetan, labur eta motz, bereziki gutxi aztertu izan den gai bati buruz jardungo dugularik, petroglifoetaz hain zuzen ere.

Badakigu gai hori bezalako bide limurietan ibiltzean estropezu egiteko aukerak ugariegoak direla, baina era berean, arrisku horrek biziki erakartzen gaituela aitortu behar. Beraz, zolua irristakorra den tokian eta arrastorik nekez jarrai daitekeen, mantsoago eta zeharka joan arren, urrats berri bat ematerakoan aurrekoan sendo indar hartzea eta ahalik eta aukera gehien kontutan hartzea onuragarria izaten denez, ondorengo lerroak, gehien batean, dokumentazio historikoan, ahozko tradizioan eta konparazioan oinarrituko dira.

2. Argurutx izeneko parajea, Hernanin, Oindi mendiaren iparreko isurialdean dago, itsasoaren gainetik 215-220 m.tako altueran, Martinxulo, Agustinsoro, Urteaga eta Tantzuri izeneko tokiek mugaturiko laukiaren barruan¹. Gertuen dauden baserriak 'Pardiola txiki', 'Goiko Pardiola' ('Joxepenea'), 'Txabolategi' eta 'Bortoloaenea' dira.

Argurutx I




Urteagako zabaleko bidegurutzetik goazela, lehenengo gurutzea, 60 m. ibili ondoren, eskubitara 'Listorreta'-ra igotzen den bidea eta ezkerretara sastrakadi edo sasia dituen sagasti gaztean, beheko bidetik 80 m. igota aurki daiteke, sasiaren kontra, gora dihoan bidetik, ezkerretan, hamabost metrotara. Oinaren gaineko partean 0,17 m.tako altuera eta besoetan 0,21 m.tako zabalera duen gurutze latino patatu bat da². Altueran 0,32 m. eta zabaleran 0,27 m. dituen lurrean tenteka sarturiko hargorri formagabeko batean landua dago, iparraldera begiratzen duen aurpegian, 0,02-0,03 m.tako sakonera batekin. 1996ko martxoaren 9an topatua, aurrerantzean IV gurutzea deituko dugu³.

Bigarren gurutzea, Urteagako bidegurtzetik 190 m.tara, eskuinaldean sortzen den bidezidorra 20 bat metro segituz aurki daiteke. Oinean 0,50 m.tako altuera eta besoetan 0,24 m.tako zabalera duen hiruki gainean ezarritako gurutze latino bat da. Oinaren gainekaldeko muturra bitan irekitzen delarik, besoak patatuak dira. Altueran 0,55 m. eta zabaleran 0,38 m. dituen lurrean tenteka sarturiko hargorri formagabeko batean landua dago, iparraldera begiratzen duen aurpegian, 0,02-0,03 m.tako sakonera batekin. 1996ko ilbeltzaren 27an topatua, aurrerantzean III gurutzea deituko dugu⁴.

Hirugarren gurutzea, Urteagako zabaletik goazela 250 metrotara dago, bestela esan, III gurutza daraman bidezidorra sortzen den unetik 60 bat m.tara, bidearen kontra, eskuinaldean dagoen harritzar batean. Bidetik ikusten ez denez, hori egin ahal izateko, harritzarra pasatu eta segituan dagoen ataka bat gaintitu behar da, gurutzea aska biribil baten ondo-ondoan dagoelarik. Oinean 0,48 m.tako altuera eta besoetan 0,32 m.tako zabalera duen gurutze latino bat da. Altueran 3,30 m. eta goikaldean 3,20 m. x 2,50 m.tako azalera duen hargorri itzel batean landua dago, hegoaldera begiratzen duen aurpegian, 0,01-0,02 m.tako sakonera batekin. 1989 urteko abenduaren 6an topatua⁵, aurrerantzean I gurutzea deituko dugu.

Laugarren gurutzea berriz, I gurutzetik hegoalderantz jota 11 m.tara dagoen harritzar baten gainekaldean aurki daiteke. Oinean 0,54 m.tako altuera eta besoetan, gainekoan 0,19 m., eta azpikoan 0,38 m.tako zabalera daukan gurutze latino patriarkal edo lorenako bat da. Beso luzeenaren muturrak bitan irekitzen dira, oina basatua de-





Argurutz II

larik. Lurretik 0,5 m. inguru gailentzen den hargorri itzel baten gainekaldean landua dago, oina ipar-mendebaldera begira duela, 0,01-0,02 m.tako sakonera batekin. Lehenengoz 1989 urteko abenduaren 6an topatua, aurrerantzean II gurutzea deituko dugu⁶. Aipagarria da gurutze honen oinaren norabidea eta bertatik III eta IV gurutzeetara dagoena, alderik gabe, bat etorri izana.

Nahiz eta egungo bidetik I eta II gurutzeak ezin ikusi diren, antzina hori ez zatekeen horrela izango, I gurutzea duen harritzarra baino metro batzuk lehenago, eskuinaldera, bide zaharrago baten arrastoa argi segitu baitaiteke. Itxura denez, aurreko bide honek, I eta II gurutzeak gainekalde edo eskubitik igarotzen zituen, ez egun bezala azpikalde edo ezkerretatik, eta horrela, lehengo bidetik gurutzeak primeran ikusiko ziratekeen, hain zuzen ere II gurutzea bidearen kontra-kontra geldituko zatekeelarik.

Inguruaren deskribapena osatzeko, I eta II gurutzea pinudi batean, III gurutzea, sastraka artean, eta IV gurutzea berriz sagasti batean daudela esan dezagun. I eta II gurutzeak dauden tokitik errekatxo bat jaisten da, II gurutzea duen harritzarraren parean lurperatu eta I gurutzea duen harritzarraren kontra sartu-atera bat egin ondoren, azkenik, metro gutxitara, bidearen bestaldean azaltzen delarik⁷.



Argurutz III

3. Orain dela lau urte inguru, inguruan bakarrik diren giza-urrats hauen jakinminez, lehenik eta behin, gurutzei buruz informazioa izan zezakeen antzinako dokumentazioa miatzen hasia erabaki genuen, estreinako aipamena 1671 urteko mugarritzatze batean topatuz:

"... y de alli por el arroyo abajo ha Uaran, y de alli á Uncela, y de alli ala **encrucijada de Urteaga** donde se halla una piedra que sirue de Mojon con señal dela Cruz y desde alli baja en derechura al dicho Rio dela Urumea por los confines de la Jurisdiccion, y termino de la dicha villa de Hernani, ..." ⁸

Hurrengo aipamenak, zeinak azkenak ere ba-

diren, 1797 urteko akta liburu batean topatu genituen. Aurrenekoa ez da esanguratsuegia:

"..., y desde alli à la **encrucijada de Urteaga**, y piedra que tiene la señal de la Cruz, y bajando desde alli hasta el río de Ururmea ..." ⁹

Baina lerro batzuk aurrerago benetan adierazgarria den pasarte bat irakur daiteke, hain zuzen ere, horixe izan baitzen III eta IV gurutzeak aurkitzeko bide eman zuena:

"Desde el insinuado mojon dela orilla del arroyo de Anzola siguiendo para abajo con la agua del propio arroyo hace punto en la union de la re-




gata que cae de Urteaga por Eguieder, y se sube por la misma regata, **hasta el peñasco, ò piedra que llaman Argurucea, que sirve de mojon, y para su legitimidad por tal le tiene sobre la superficie una Cruz artificial. Poco antes de esta piedra grande, ò mojon, existen otros dos tambien con cruces: el del medio plantificado, y mobible; pero el del extremo firme, y peremne, como la citada de Argurucea.**

De este mojon de Argurucea, mirando al monte de Santiago de Astigarraga, se baxa en derecha por limites conocidos, y notorios, hasta dâr con la ria principal, en el sitio llamado Borrotola; ...".

bat baduela adierazi, baina ez du hala ere Ataungo ikerlariak aipaturiko perra itxurarik.

Bestalde, gurutzeei buruzko gure galderek bi erantzun ezberdin jaso dituzte¹¹. Lehenik, ondoan bizi den Txabolategi baserriko nagusiak konparazio baterako, ea Argurutzen harritan landutako gurutzerik ezagutzen zuen galdetzean, segituan baietz erantzun zuela adierazi. Baina ez hori bakarrik, berak hiru ezagutu arren, ziurrenik, inguruan, lau gurutze izango zirela ere jakinarazi baitzigun. Gurutze berezi haiei buruz bere aurrekoei zer entzun izan zien itauntzean, Argurutzen urrea zela lurrarrazpian, pitxarreko urrea zegoela enterratuta erantzun zuen.



Argurutz I

Argurutz III

Argurutz II

Argurutz IV

4. Ahozko tradizioari dagokionez, José Miguel Barandiarán-ek honako kontakizuna biltzen du:

"Junto al antiguo camino que iba de Goizue-
ta a Hernani, en el punto denominado Argûtz exis-
te una marca como de herradura, labrada en un
peñon. Dicen en Arano (Navarra), que fue impresa
por el caballo de Santiago."¹⁰

Zoritarrez kontakizun hau ezin izan dugu ziurtatu, ez baitugu bere berri eman zezakeen in-
formatzailerik aurkitu. Santiagoren zaldiaren
arrastoari dagokionez, I gurutzea duen harritzarrak
gainekaldean abere urrats antzeko marka natural

Bigarrenik, gertukoak izanik bertatik hainbat
aldiz igaro arren gurutzeak ezagutzen ez zituzten
Txabola baserriko Arruti ahizpek, bere amonak gu-
rutze latinoak duen harritzarra Santsonarri bat zela
nola esan ohi zuen jakinarazi ziguten¹². Aidanean,
indartsuak, bizkarrean zekarrela, Argurutzeraino
iritsirik, gorago ezin igo eta bertan utzi omen zuen.

Azkenik Goiko Pardiolako Fermín Michelenak,
lau gurutze zirela ziurtatu ondoren, bere aitak ho-
nako kontakizuna aipatzen zuela jakinarazi zigun:
artzaia zen mutiko bat Argurutzera omen zihoan
ardien bila baina ez joateko esan omen zioten. - Gi-
zon gaiztoak zetozte... Ardiei arkumeak tripatik
baionetakin atera eta jan egiten omen zituzten.

5.1. Aipamen idatzietatik atera daitezkeen ondorio batzuk ikus ditzagun. Lehenik eta behin I edo II gurutzeetatik bat 1671 urterako bazela argi legoke, bai eta gurutze hori daukan harritzarra mugarri bezala erabiltzen zela ere. Bigarrenik, 1797 urtean, 'Argurutzea' I gurutzea edo II gurutzea duen harritzarrari esaten zitzaiola igarri daiteke, gurutze hori edukitzearen arrazoia mugarri bezala erabiltzea izanik. Gainera, aipatu urterako, gurutze bana zuten beste bi harri bazeudela garbi legoke. Horrela, dokumentazioaren arabera, alde batetik, mugarri izan eta gurutze bat edukitzearen artean loturarik bazela, eta bestetik, gurutzeak beti ere bideren batetik hurbil leudekeela azpimarratu.

Baina aipamenek galderarik ere eragiten dute. Ildo horretatik, Urteaga bezala izendaturiko bidegurutzea, egun Urteagako zabala bezala ezagutzen den tokian dagoena, hots, behetik gora goazela I eta II gurutzeetatik zientu pare bat metro tara dagoena, ala gurutzeak pasa ondoren, hauetatik metro gutxitara aurki daitekeena ote zen litzateke aurreneko galdera. Bigarrena berriz, gainontzeko gurutzeak dituzten harriak ere mugarriak ziratekeenez, mugak zeintzuk ziren azaltzean, zergatik ez diren aipatzen litzateke.

Lehenengo galderaren arian, Urteagako bidegurutzea, dokumentazioaren arabera, gurutzeetatik gertuen dagoena, hots, goikoa, litzatekeela pentsa daiteke hasera batean, baina, inguruko toponimia aztertuz gero behintzat, gauzak ez lirateke hain gardenak. Alde batetik, beheko bidegurutzeari, hau da, egun, gehien batean, 'Urteagako zabala' bezala ezagutzen denari¹³ 'Argurutzeko lepoa' deitu izan dionik balegokeelako¹⁴, eta bestetik, bertan dagoen borda 'Argurutzeko borda' bezala ere ezagutu izan delako¹⁵. Izenaren etimologiari erreparatuz gero, zeina batere bide egokia ez den, bi bidegurutzeetatik 'urtsuena' goikoa litzateke, horrek ezer gutxi esan nahi badu ere¹⁶. Beraz 'Urteaga' eta 'Argurutz' toponimoen esparruak nahastu egiten direla esan behar.

Bigarren galderari dagokionez, dokumentazioaren arabera, gurutzeak zituzten beste bi harriak, 1797 urtean behinik behin, mugarri bezala erabiltzen zirela pentsa badaiteke ere, hori frogatzea ez da batere erreza, batez ere nahikoa zehatza litzatekeen 1671 urteko muagarriztatzean aipatzen ez direlako. Horren arrazoiatariko bat 1797 urteko dokumentu berak aipatzen du:

"En día se hallan mas mojones en dichos montes francos de esta N. Villa de Hernani, que los que se espresan en la declaracion antecedente de Peritos, sin duda por haberse colocado posteriormente por las diferencias ocurridas en el transcurso del tiempo, cuya noticia para la claridad sucesiva se pone aquí en esta forma."

5.2. Ahozko tradizioari erreparatuz gero, lehenik eta behin, lau kontakizunek Argurutz toki berezi bezala markatu izana azpimarratu. Hori esanda gero ikus dezagun berezitasun hori zertan datzan.

Lehenengo kontakizunaren arabera Argurutzen Santiagoren zaldiaren arrasto bat legoke. Horrela, José Miguel Barandiarán-ek dionez, gehienetan santuak izaten diren zaldunen abereen urratsetatik herriak sendagarritzat jotzen dituen urak isurtzen dituzten iturriak sortu izan dira¹⁷. Ildo horretatik, Argurutzen, sendagarri denik aipatu ez badigute ere, I gurutzea duen harritzarraren azpitik iturri bat igarotzen dela azpimarratu. Euskal Herrian horrelako urratsak toki gehiagotan badirela gogora dezagun, munduko beste toki askotan bezala hemen ere pertsonaia mitologikoei egotzen zaizkien arrastoak ugari baitira¹⁸. Argurutzen inguru hurbilari dagokionez, zaldizko santu batena ez bada ere, bertatik gertuen dagoena, Amasako 'Loatzu' mendian, 'Sansonen hankazulo' deituriko urratsa da¹⁹.

Bigarren kontakizunak dioenez, Argurutzen urrez beteriko pitxar bat legoke lurpean, gertakari hori, inguru hurbilean Urdaburu mendiaren tontorrean eta Astigarragako 'Karlosenea' baserrian errepikatzen delarik. Berezitasun bezala, azken bi hauetan 'altxorak' ardiek bere hankekin topatzeko moduan leudekeela adierazi, aurrenekoan urrea zaku batean eta bigarrenean eltze batean leudekeelarik²⁰. Horrela, ahozko tradizioan, lurpean urrea egon dadin derrigorrezko baldintza ez bada ere, sarritan, megalitoei eta hauek dauden mendiei antzeko gertakariak egotzi izan zaizkie (cfr. op. cit. 146-148 orr.), eta hildo horretatik, Argurutz megalitotan aberatsa den inguru batean kokatzen dela gogoratu. Dena den, kasu honetan, argi legokeena zera da, Argurutz lurpean zerbait edukitzeagatik litzatekeela berezi.



Argurutz IV

Hirugarren kontakizunari dagokionez, lehenbiziko mezua I gurutzea duen harritzarra ez litzatekeela nolanahiko harri bat, hots, jatorri berezia lukeela da. Horrela, ahozko tradizioan maiz jentilek, basajaunek, eta antzeko izakiek, hots, paganoek buruturiko ekintzak Santsoni egotzi izan zaizkiola gogoratu²¹. Horretaz aparte, Argurutz, leku ala elementu, nolabait esan, Santsonen ahalmenaren eta ezintasunaren muga edo probarki litzateke, edota, nahi bada, beste ikuspuntu batetik, bertatik igaro edo berau garraiatzeko Sansonen indarra gutxi deneko toki edo harri bat.

Laugarren kontakizunaren arabera Argurutze toki arriskutsua litzateke, kalte izugarriak eragiten

zituzten gizon gaiztoak handik bailetorkze. Kontakizunean, bertatik igarotzen den bidea eta tokia bera gaiztakeriaren eremuaren ate bihurtuko litzateke nolabait, hori, inguru guztian han bakarrik gertatuko litzatekeelarik.

Beraz bada, ahozko tradizioaren arabera, argi legoke Argurutz ez litzatekeela nolanaiko tokia.

6.1. Dokumentazioak eta ahozko tradizioak eskeinitako informazioa errepasatu ondoren, modu ezberdinetara, Argurutzarekin loturarik baluketen beste elementu higiezin batzuk ikus ditzagun.

Hasteko, lehenik eta behin, Euskal Herrian, aldi berean, pertsonaia mitologikoekin loturaduna, gurutzez markatua eta mugarria bezala erabilia izan den elementu higiezinik ez dugula ezagutzen esan. Horrela, baldintza horiek izateari dagokionez, hirugarrena ere balu, I gurutzea duen harritzarra berezia litzateke erabat.

Egin dezagun aurrera. Segidan pertsonaia mitologikoren batekin loturarik luketen harritzar batzuei erreparatuko diegu. Baina beste ezer baino lehen, mugarri izatea ere agian berarekin lukeen adibide bakar bat topatu dugula adierazi, Hernani eta Donostiako mugan dagoen 'Arriuztuna' edo 'Buztanarri' izeneko harritzarra hain zuzen ere. Horrela, Santsonen Astigarragako 'Santiago ermita'-tik jaurtiki izanaz gain, itxura denez, Akolako *exido*-aren mugarri ere izango zatekeen, garai batean behinik behin²². Dena den tasun hori izatea ez da ziurregia, XIX. nola XX. mendean, Hernani eta Donostia artean buruturiko mugarritzeetan ez baita aipatzen.

Pertsonaia mitologikoekin loturarik luketen elementuen artetik-ezagutzen ditugunetatik noski-bost dira, besteak beste, oraingoz Argurutzarekin lotura gehien luketenak, Bujandako 'San Fausto', Soralezeko 'Ollarraitza', Urdiaingo iturriaren ondoko harria, Ataungo 'Arbotxoeta', eta Izako 'Arkaitz'.

Kanpezuko Santa Kruz eta Bujanda artean, San Faustoren zaldiaren urrats batek sortua litzatekeen iturri bat dago. San Faustoren gorpua gurtzen den tokirako igoera malkartsuan, non egun Bujanako eliza parrokiara dagoen, santuaren zerrendoa zeraman astoak hiru genuflexio egin omen zituen harri gainean, zeinak, gogora daitezen, egurrezko hiru gurutzez markaturik dauden. Herriaren

ustez animalia azken genuflexioa egiterakoan lehertu omen zen, toki hartan bertan santuaren gorpua ehortzi eta Bujandako egungo eliza eraiki zelarik²³.

Soraluzeko baserritarren arabera, jentil batek 'Untzeta'-tik abailaz jaurtikiriko harritzarraren azpian urrezko balenka bat legoke lurperaturik²⁴.

Udiaingo iturriaren ondoko harritzarra bertaraino jentil batek bizkarrean eramana litzateke²⁵.

Ataunen, *Sugâr* -ek 'Muskia'-tik jaurtikiriko Arbotxoetako harritzarra aurretik berau bedeinkatu gabe ezin omen zen ikuitu²⁶.

Azkenik, Iza bailarako biztanleak 'Arkaitz'-etik (Peña de Oskia) pasatzean, bertako sorginak uxatzeko, errekarri batekin harkaitzean gurutze bat marrazten omen zuten²⁷.

Bestalde, pertsonaia mitologikoren baten aipamenik izan ez arren, bada Gipuzkoan landuriko gurutze bat duen urrats "santu" bat. Horrela, Amezketan, "*Igone*" baseritik hurbil, giza urrats baten itxurako arrasto bat eta landuriko gurutze bat dauzkan harri bat dago, non hainbat fededunek bertatik igarotzean gurutzea ikuitu, aitaren egin, eta arrastoean limosnatarako txanponen bat uzten zuen, diru hori topatzen zuenak eliza edo ermitaren batera eraman behar zuelarik²⁸.

Beraz, I gurutzea duen harritzarraren ezaugarri guztiak, hots, pertsonai mitologiko batek garraiatua izatea, aipatu motako izaki baten arrasto bat egotea, landuriko gurutze bat edukitzea eta azpian urrezko zerbait gordetzea, banaka edo bina-


ka, ez lirateke Argurutzen bakarrik emango.

6.2. Azter dezagun segidan, labur bada ere, mugarri eta gurutzeen arteko lotura. Horrela, mugarri arruntek nola artamugarriek batzutan gurutzeak landurik izaten dituztela jakina da²⁹. Hernanin, konparazio baterako, gurutzerik baduten lau mugarri ezagutzen ditugu, guztiak latinoa bezala izendatzen den tipologiakoak, bai eta garai berekoak ere, XVII. mendekoak bailirakete denak³⁰.

Argurutzetik ez oso urruti, Astigarragan, Donostiako 'Floreaga' berri baseritik gertu, bai eta Errentariako 'Urritzaga' baserriaren ondoan ere, bada landuriko gurutzerik duen mugarririk³¹.

Urrutiago, Arabako 'Opakua' mendatean eta Gipuzkoako 'Altzania' partzuergoan hain zuzen ere, badira, besteak beste, gurutzeak dituzten bi mugarri³². Arabakoan gurutzea latinoa litzateke, besoak patatuak izanik, oinaren bi muturretan hiruki bidez errematatua legokeelarik. Altzaniako 'Larrebil' parajea dagoen artamugarriarena berri maltakoa bezala izendatzen den motakoa litzateke.

6.3. Bestalde, mugarriak ez dira gurutzeak landurik dituzten harri bakarrak, monolitoek ere batzuetan gurutzeak izaten baitituzte landurik. Horren lekuko, Argurutzetik kilometro gutxi batzutarra, Astigarragan, 'Txoritokieta' eta 'Langagorri'-ko monolitoek landurik dituzten gurutzeak. Biak grekoak izanik, bigarreanean, hau da, Langagorrikoan, oin nahiz besoan muturrak hiruki bidez errematurik leudeke³³.



Gurutzeen azpian dagoen marra 10 zentimetro dira.

Floreaga berri *Urritzaga* *Langagorri* *Garagartza* *Larrebil* *Elorriaga* *Ameikurutz*



Era berean, lauki tankerako beste harri batzuk ere gurutzeak badituzte. Horren lekuko, Mendaron, 'Ameikurutz' izeneko parajea, Oñatin, 'Esateko lepo'-an eta Urnietan, 'Elorriaga' baserri ondoan dauden harri gurutzedunak. 'Arno'-tik gertu dagoen gurutzea patriarkal edo lorenakoa da, berezitasun azpimarragarri batekin, azpiko besoa borobil baten barruan egotea hain zuzen ere³⁴. 'Deguria'-tik gertu dagoena berriz basaturiko gurutze latino bat litzateke³⁵. Azkenik Urnietakoa ere, zeinak 1821 urtea idatzirik daukan, basaturiko gurutze latino bat litzateke³⁶.

6.4. Azpiatal honekin amaitzeko, Gipuzkoan landuriko gurutzerik baduen harkaitzik ere badela adierazi. Horrela, Usubilgo udal barrutian, Aginagan, 'Gaztelu' izeneko parajea, hargorrizko harkaitz batean, pometeaturiko gurutze latino bat landurik ikus daiteke, ondoan interpretagaitzak diren beste arrasto batzuk ere badirelarik. Ez dugu berari buruzko ahozko ez eta idatzizko aipamenik aurkitu³⁷.

7. Segidan, aurreko guztiaren sintesi, ondorioen txanda letorke. Baina, horretarako beharrezko liratekeen lokarriak bermatzeko adina informazioz ez daukagunez, hipotesi batzuk botatzera mugatuko gara, beti ere, etorkizunean, datu gehiagorekin, norbaitek, gezurtatu ala egiaztatu ahal izango dituenaren itxaropenez.

– I gurutzea litzateke lauetan zaharrena, 1671 urteko dokumentuan aipatzen dena izanik. Berau daukan harritzarra kristau tradizioko pertsonaiekin sinkretismoz lotua legoke, izatez ohitura paganoen objektu litzatekeelarik. Hildo horretatik gurutzea harritzarra kristautzeko landua litzateke, mugarri bezala erabiltzea bigarren mailako gertakari bat izanik.

– II gurutzearen izateko arrazoia bide zaharren kontra egotearekin lotua legoke. Ildo horretatik, besteak beste, bi aukera egon litezke. Lehenengoa, lurperaturiko urrearen kontakizunaren ildotik, bertan gertaturiko heriotzaren bat adierazteko landua izatea litzateke. Horrela, gurutzea patriarkala edo lorenakoa izateak hildakoaren nortasunarekin edo kontestu kulturalarekin zerikusirik izan lezake. Bigarren hipotesia berriz, Urumeako zilegimendien mugatik gertu legokeelarik, handik

igarotzen zirenei hori adierazteko landua izatea litzateke. Zentzu horretan, galdera nagusia, patriarkal edo lorenako izateak, Artikutzan eta Andatzan makulu bat duten mugarriek bezala konparazio baterako, egin zeneko Urumeako zilegimendien jabeen ikur bereizgarri litzatzatekeen ala ez da. Dena den, gure iritziz, hipotesi horrek egia izateko aukera gutxi lituzke, batez ere, Urumeako zilegimendietan dauden gainontzeko mugarrietan horrelakorik agertzen ez delako. Gurutze honen kasuan beraz, argibidea patriarkal edo lorenako izatea, ikuspegi artistikotik at, bereizgarria litzatekeen jakitetik pasako litzateke. Lantegi hori nahikoa zaila da oraingoz, Gipuzkoan, momentuz horrelako gurutzeak dituzten elementu gutxi aurkitu baitira. Horrela, bertako estela biribil guztien artean adibidez, gurutze patriarkal edo lorenako bat duen bakar bat dago, Astigarragan hain zuzen ere. Berau, Antxon Aguirre-ren iritziz, XV. mendekoa litzateke. Beste ikuspegi batetik, gurutze latino patriarkalak Donejakue bidearekin lotu dituenik izan dela gogora dezagun³⁸. Nolanahi ere, gurean, gakoa II gurutzearen exozentrismoa bideondoan egotearekin loturik legokeen argitzea litzateke.

– III gurutzearen izateko arrazoia argitzerakoa, besteak beste, bi aukera egon litezke. Lehenengoa, lurperaturiko urrearen kontakizunaren eskutik, bertan gertaturiko heriotzaren bat adierazteko landua izatea litzateke. Bigarren hipotesia berriz, Urumeako zilegimendien mugatik gertu legokeelarik, handik igarotzen zirenei hori adierazteko landua izatea litzateke. Horrela, egiaztatzeak aukera gehienak hipotesi horrek lituzke, batez ere, IV gurutzea duen harriak bezala mugarri itxurarik balukeelako.

– Era berean, IV gurutzearen izateko arrazoia argitzerakoa, III gurutzearekin gertatu bezala, bi aukera egon litezke. Lehenengoa, lurperaturiko urrearen kontakizunaren eskutik, bertan gertaturiko heriotzaren bat adierazteko landua izatea litzateke. Bigarren hipotesia berriz, Urumeako zilegimendien mugatik gertu legokeelarik, handik igarotzen zirenei hori adierazteko landua izatea litzateke. Horrela, aurrekoan bezala, egiaztatzeak aukera gehienak hipotesi horrek lituzke, batez ere, III gurutzea duen harriak bezala mugarri itxurarik balukeelako. III eta IV gurutzeak dituzten harriak mugarri izateko aukeraren alde Urumeako zilegimendien beste lau mugarri, txikiagoak izan arren, antzeko gurutzeak edukitzea legoke. Aurka berriz, aipatu lau horiek hirukitan oinarrituak ez izatea legoke.

– Azkenik II, III eta IV gurutzeak elkarren artean nolabaiteko zerikusirik izateko aukera legoke. Alde batetik, II gurutzearen oinaren norabideak bertatik III eta IV gurutzerako runbo edo bidea, zehaztasun osoz, adierazi izanagatik. Bestetik, tipologikoki ezberdinak izan arren, biak orkilladunak izanik, morfologikoki, neurri batean behinik behin, antzekotasunik baluketelako. Aurka, aldiz, tipologiaz at, beste biak ez bezala, II gurutzea bertako harritzar batean, eta ez harri solte batean, landua izatea legoke.

– Dena dela, oraingoz hipotesi bat besterik ez bada ere, II, III eta IV gurutzeak I gurutzea baino berriagoak lirateke ziurrenik.

1. U.T.M. kordenadak: X. 585.200-585.300; Y.4.788.150-4.788.300. 1:5.000 eskalako kartografian 64-38 orria dagokio.

2. Erdi lurperatua dagoenez ezin izan dugu osorik neurtu.

3. 'Goiko Pardiola' baserriko Fermín Michelena-k (1939) jakinarazi zigun bere kokapena.

4. Txabolategi baserriko José María Pagola-k (1925) jakinarazi zigun bere kokapena.

5. Egun hartan, Hernaniko toponimia biltzen genbiltzala, Fermín Michelena eta bere aita Agustín Michelena-k (1907) bidalita, Donostiako Josu Tellabide-rekin izan ginen.

6. Egun hartan, Fermín Michelena eta bere aita Agustín Michelena-k (1907) bidalita, Josu Tellabide-rekin izan ginen.

7. Orain dela urte gutxi batzuk bidea zabaldu zenean I gurutzea duen harritzarraren azpiko partea harriz betea izan zen.

8. Hernaniko Udal Artxibategia (H.U.A.), C-5-I-3-8.

9. H.U.A., C-1-II-7.

10. José Miguel Barandiarán, *Obras completas*, La gran enciclopedia vasca, Bilbao 1973, II t., 112 orr. 1. ed.: *Eusko Folklore. Materiales y Cuestionarios*, 1. seriea, Gasteiz, 1923. 25-36 zenb (48 orr. guztira).

11. Galdeketa, 1996ko IIbeltzaren 27an izan zen, 'Lepatxiki' izeneko puntuan. Informatzaileak 'Txabolategi' baserriko José María Pagola (1925) eta 'Bortoloaenea'-ko José Miguel Iraola (1941) izan ziren.

12. Galdeketa, Argutuzen bertan, 1996ko IIbeltzaren 20ean izan zen. Informatzaileak 'Txabola' baserriko Juana Arruti (1931) eta Pakita Arruti (1933), eta 'Urruzuno' baserriko Sebas Iriberrí (1940) izan ziren.

13. Ahozko aldagaiak honakoak lirateke: "Urtiako txabala", "Urteko txabale", "Urtoki txabal", "Kurtiko txabal", "Kortiko txabala". Luis del Barrio, Josu Tellabide eta Luix Mari Zaldúa, Hernani udalerriko toponimia bilketa, Hernaniko Udala, Hernani 1989, 247 orr., (argitaratu gabe).

14. Ahoz "Argutzeko lepoa". Ibidem.

15. Ahoz "Argutzeko borda" eta "Argutzeko borda", op. cit., 66 orr. Aipatu eraikuntza baserri izan zen garai batean, 1864 urteko Gipuzkoako nomenklaturaren (H.U.A., B-4-I-2-1) "Urtiaga" izenarekin agertzen delarik.

16. Cfr. Luis Michelena, *Apellidos vascos*, 4. ed., Txertoa, Donostia 1989, 157 orr.

17. José Miguel Barandiarán, *Obras completas*, La gran enciclopedia vasca, Bilbao 1973, II t., 109 orr.

18. Op. cit., 102-133 orr.

19. Amasako 'Alustiza' baserriko José Vicente Echeberria (1938) eta Aginagako Joxe Jabier Furundarena lankidearekin bisitatu, neurtu eta erretratatu. Koord.: X.578.299; Y. 4.780.105; Z.410. 1.5000 eskalako kartografian 64-60 orria dagokio.

20. Aurreneko kontakizuna 'Txabolategi' baserriko José Oyarzabal-ek (1905) jakinarazi zigun, bigarrena Astigarragako 'Ermaña' baserriko María Olazabal-i (1936) esker ezagutzen dugu.

21. Urrietako 'Aballarri' harritzarraren kontakizunarekin alderatu adibidez. Ikus Luis Pedro Peña Santiago, "Los Gentiles", in *Mitos y leyendas del País Vasco*, Induban, Donostia 1973, 33 orr.

22. Aholako exido edo barrutiaren XVIII. mendeko plano batean horrela agertzen da (H.U.A., C-5-I-1-9).

23. José Miguel Barandiarán, *Obras completas*, La gran enciclopedia vasca, Bilbao 1973, II t. 110 orr.

24. Op. cit., 89 orr. 'Ollarriaitza' izena oinarri duenarekin batera oilar irudi bat osatzeagatik luke (ibid.).

25. Op. cit., 90 orr.

26. Op. cit., 88 orr. Harritzarraren babesean basajaunak biziko ziratekeen (ibid.).

27. Op. cit., 98 orr.

28. Op. cit., 107 orr.

29. Artamugarri edo haustarriei dagokienez ez gara bazter mugarriak dauden tokia adierazten duten arrastoei buruz ari.

30. 1671 urtean erabaki zen Urumeako zilegimendien zatiketa gauzatzeko, 'Irumugarrieta', 'Pagalegi', 'Merkue' eta 'Garagartza' izeneko parejeetan ezarriak. Batzuk udalerri arteko mugarri ere badira. Aurrerago agertzen den 'Garagartza'-koa, aurrenekoz 1989 urtean ikusi bagenuen ere, 1993ko apirilaren 7an neurtu eta erretratatu. Koord.: X. 587.865; Y. 4.782.615; Z. 670. 1:5.000 eskalako kartografian 64-55 orria dagokio.

31. 1996ko otsailaren 24ean neurtu eta erretratatuak. 'Florea' berri-koaren koord.: X. 576.932; Y. 4.793.559; Z. 245. 1.5000 eskalako kartografian 64-23 orria dagokio. 'Urritzaga'-koaren koord.: X. 588.275; Y. 4.791.340; Z. 170. 1.5000 eskalako kartografian 64-31 orria dagokio.

32. Lehenengoari buruzko informazioa Antxon Agirre antropologo lagunari zor diogu. 'Larrebil'-ko artamugarriari dagokionez, 1993ko otsailaren 12an topatu genuelarik, hiru gurutze, bi maltakoak eta bestea latinoak, dituela adierazi. Koord.: X. 558.565; Y. 4.752.765; Z. 990. 1:5.000 eskalako kartografian 113-38 orria dagokio.

33. Egun, higiduraren eraginez agian, mutur batekoa falta da. Ikus Xabier Peñalber, "Estudio de los Menhires de Euskal Herria", *Munibe*, 35 urtea, Sociedad de Ciencias Aranzadi, Donostia 1983, 380-381 orr. 'Txoritokieta'-koari dagokionez ikus, Jesus Altuna et al., "Carta arqueológica de Guipuzcoa", *Munibe*, 34 urtea, Sociedad de Ciencias Aranzadi, Donostia 1982, 197 orr.

34. 1996ko otsailaren 24ean neurtu eta erretratatu. Nola joan jakiteko etab. ikus Luis Pedro Peña Santiago, *100 cumbres y rincones de la montaña vasca*, Elkar, Donostia 1990, 96 orr.

35. Ez dugu bisitatu. Nola joan jakiteko etab. ikus op. cit., 102 orr.

36. Bere kokapena Mari Carmen Echave-k, 1988ko abenduaren 22an, jakinarazi zigun. Egun berean neurtu eta erretratatu. Koord.: X. 581.090; Y. 4.788.697; Z. 195. 1:5.000 eskalako kartografian 64-37 orria dagokio.

37. Anitz, *Inventario de elementos inmuebles de interes histórico-artístico y etnográfico del termino municipal de Usurbil*, Aranzadi Zientzi Elkarte, Donostia 1991 (argitaratu gabe).

38. Cfr. Luis Pedro Peña Santiago, *100 cumbres y rincones de la montaña vasca*, Elkar, Donostia 1990, 96 orr.